




1- ENTZUN AURRETIK

1.1 A ze sorpresa!

   Gaurko kapituluari Amaiari sorpresa emango diote bere lagunek. Eta zu gogoratzen zara zure bizitzan izandako sorpresa batekin? Irakurri beheko egoerak. Honelako zerbait gertatu zaizu inoiz? Edo beste egoera bat?



- ❖ Nire urtebetetze-egunean lankideek abestu egin zidaten, argiak itzalita. Oso sorpresa polita izan zen. Ez nuen espero.
- ❖ Nire senarrak Bruce Springsteen ikusteko sarrerek oparitu dizkit. A ze sorpresa eman didan!
- ❖ Behin txikitan nire aitak txakur bat ekarri zuen etxera. Hura bai sorpresa! Oraindik gogoan dut.
- ❖



Binaka kontatu elkarri jaso duzuen sorpresarik politena.

  Zein iruditu zaizue sorpresarik politena? Zerrendatu talde handian.

1.2 Amaiaren sorpresa!

  Entzungo duzun audioan Amaiari bere lagunek sorpresa emango diote. Irakurri transkripzioaren zati hau, eta binaka, erantzun beheko galderari.

JOSU.— Hemen dituzue garagardoak.

ALEX. — A ze sorpresa hartuko duen Amaiak aldageletatik ateratzen denean!

Ze sorpresa emango diote lagunek Amaiari?

Kiroldegian opari eder bat egingo diote.

Bidaia bat tokatu zaiola esango diote.



Kiroldegira joan dira bere bila elkarrekin parranda egiteko.

Besteren bat?.....

Audioa entzuten duzunean, benetan zer gertatu den jakingo duzu. Ea asmatzen duzun.

2- ENTZUN BITARTEAN

2.1 Amaiaren zain...

   Entzun audioaren lehen bi zatiak eta seinالاتu taulan egia edo gezurra den. Amaieran, gezurrak zuzendu. Erantzunak alderatu zure ondokoarekin eta gezurrak zuzendu.

	EGIA	GEZURRA
Josu ez da inoiz joan kiroldegira.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
June askotan joaten da kiroldegira, ikaragarri gustatzen zaiolako.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Josuk eta bere lagunek Amaiarekin kiroldegira joan nahi dute.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
June aldageletara joan da Amaia han dagoen begiratzera.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Amaiaren bila joan aurretik pintxo-potea egitera joan dira.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Alexek uste du aldagelatik ateratzean, Amaia harrিতuta geratuko dela	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

2.2 Amaiaren erreakzioa.



Audio osoa entzun ondoren, aukeratu galdera hauen erantzun zuzena.

Ze plan ez dute egin gauerako?	Amaiak lagunak ikusi dituenean zer esan du?	Azkenean Amaiak errieta egin die lagunei. Zer esan die?
<input type="checkbox"/> - Sagardotegira joango dira.	<input type="checkbox"/> - Nik ez dut parrandarik nahi.	<input type="checkbox"/> - Ez dela hainbeste edan behar
<input type="checkbox"/> - Pintxo-potea egingo dute.	<input type="checkbox"/> - Baina, zer egiten duzue hemen?	<input type="checkbox"/> - Kiroldegira, kirola egitera etorri behar dela.
<input type="checkbox"/> - Parranda egingo dute.	<input type="checkbox"/> - Baina, zertara etorri zarete?	<input type="checkbox"/> - Berandu etorri direla.



Gogoratzen 1.2 ariketan eman duzun erantzunarekin? Asmatu al duzu zure hipotesian? Alderatu emaitzak zure lagunarekin eta komentatu ahoz. Ikus adibidea:

Nik uste nuen Amaiari opari bat egingo ziotela, eta denak kanpoan afalduko zutela.

Ba, nik uste nuen.....

3- ENTZUN ONDOREN

3.1 Hizkuntzari erreparatu.

Sorpresa adierazteko:

Aze sorpresa hartu dudan!

Aze sorpresa!

Baina, zer da hau?

Ez nuen horrelakorik espero!

Sorpresa emateko: planifikatzen

Aditza GEROALDIAN: -KO / -GO + aditz laguntzailea

Pintxo potea elkarrekin egingo dugu.

Pilota-finalerako sarrerak oparituko dizkiogu.

Harrituta geratuko da.

Sorpresa galanta hartuko du.

Nolako sorpresa?

Sekulako sorpresa = oso handia

Sorpresa galanta = oso handia

Orain erreparatu taulako egitura eta adibideei. Behean transkripzioetik pixka bat aldatu egin dugun elkarrizketa-zatia duzu. Osatu beheko aukera egokia erabilita.

Pintxo-potea egingo dugu, ezta? / Nora joango gara afaltzera? / Sekulako plana / sekulako giroa / A zer sorpresa hartuko duen

* Hemen dituzue garagardoak.

*(1)..... Amaiak
aldageletatik ateratzen denean.

* Beno, orduan gaur zer? (2)

.....

* Bai, (3)..... izaten da inguru
hauetan.

* Ze ondo, baina(4).....

Badakizue, niri ez zaizkit sagardotegiak
gustatzen.

* Ba, orduan pintxo pote luzea egingo dugu.

* Amaia gustura izango da. (5).....
egin diogu!



3.2 Sorpresa euskaltegian.



Sorpresa bat prestatutko dugu: jarri binaka eta erabaki nori eman sorpresa eta zer egin.

Erabaki kontu hauek:

- ❖ Nori egingo diogu? Euskaltegiko beste talde bati? Lagun jakin bati? Irakasleari? Idazkariari? Ikasle bati?...
- ❖ Ze sorpresa-mota izango da? (abesti bat, opari bat, erakusketa....)
- ❖ Non emango diogu? (beraien gelan, taberna batean...)
- ❖ Noiz emango diogu? (ostiralean, ikasturte bukaeran, bere urtebetetzean...)

Adibide gisa:

- **Ondoko gelakoei egingo diegu sorpresa. Afari berezia prestatuko diegu elkartean ezta?**
- ☆ **Bai, eta gainera, musikarekin izango da. Landerri esango diogu "zorionak" abestuz gitarra jotzeko.**
- **Uf, a zer sorpresa hartuko duen!**
- ☆ **Bai, eta gu hemen ikusita, harrituta geratuko da.**



Talde handian azaldu ze asmo duzuen, ze sorpresa egingo duzuen. **Baina ez esan norentzat den.** Ea ikaskideek asmatzen duten!

Jaso informazioa taula honetan:

NORI	ZER	ZERGATIK